DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2025eko apirilaren 29an izan zuen ohiko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 29 de abril de 2025, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*"Duela urtebete baino gehiagotik, mundu osoa, okupatutako Gazan gertaturiko heriotz eta suntsiketen zerrenda onartezinaren lekuko da. Israelek Gazako biztanle palestinarren aurka gauzatutako eraso bortitzak dozenaka mila pertsona hi1 ditu; familia osoak desagerrarazi ditu; bizitegi-auzoak birrindu, eta azpiegitura kritikoak suntsitu ditu, eta 1,9 milioi palestinar —Gazako zerrendako biztanleriaren % 90 baino gehiagobizilekuz aldatzera behartu ditu, aurrekaririk gabeko hondamendi humanitarioa eraginez.*

*"Hace más de un año que el mundo es testigo de un grado inconcebible de muerte y destrucción en la Franja de Gaza ocupada. El brutal ataque de Israel contra la población palestina de Gaza ha matado a decenas de miles de personas, borrado de la faz de la tierra a familias enteras, amasado barrios residenciales, destruido infraestructuras críticas y desplazado forzosamente a 1,9 millones de palestinos y palestinas —más del 90% de la población de la Franja de Gaza —, causando una catástrofe humanitaria sin precedentes.*

*2023ko urriaren 7an Hamasek gauzatutako eraso izugarrien edo gerra-krimenen ondoren (eraso horietan 1.250 pertsonatik gora hil ziren, eta 250etik gora bahitu zituzten), Israelek operazio militarrei ekin zien Gazan, eta orduz geroztik ezin konta ahala ekintza jarri ditu abian, palestinarrei kalte konponezina eragiteko.*

*Durante las operaciones militares israelíes en Gaza que comenzaron tras los terribles ataques de Hamás o crímenes de guerra del 7 de octubre del año 2023 que ocasionaron la muerte de mas de 12S0 personas y la toma de rehenes de mas de 250 personas; Israel ha puesto en marcha innumerables acciones encaminadas a causar un daño irreparable a la población palestina.*

*Mundua begira dagoen bitartean, Israelek aldebakartasunez hautsi du su-etena eta palestinarren galera etengabea dakarten eraso errukigabeak egiten jarraitzen du inpunitate osoz, eta Gazako hondamendi humanitarioa gero eta okerragoa da. Egoeraren larritasuna aintzat hartuta, Donostiako Udalak honako eskaera hauek egiten ditu:*

*Mientras el mundo mira, Israel ha roto unilateralmente el alto el fuego y sigue cometiendo ataques implacables con impunidad que causan la pérdida incesante de vidas palestinas mientras la desesperada catástrofe humanitaria en Gaza empeora cada vez más. A la luz de la urgencia de la situación el ayuntamiento de Donostia / San Sebastián piden:*

10740n XVII

*1. Israelek eta Hamasek berehala adostu behar dute su-eten iraunkorra, Gazako biztanleria zibila babesteko, eta bide seguruak bermatu behar dituzte, herritarren bizitza duina bermatzeko behar beste laguntza humanitario irits dadin Gazako zerrendara. Laguntza humanitario horren barruan sartzen dira oinarrizko hornidurak, hala nola babeslekuak, sendagaiak, ura eta erregaia.*

*1. Que Israel y Hamás acuerden y mantengan un alto el fuego inmediato y sostenido encaminado a proteger la vida de la población civil en Gaza, y se garanticen las vías seguras para la entrada de ayuda humanitaria en la Franja de Gaza en una cantidad suficiente para garantizar una vida digna de sus habitantes, incluyendo suministros vitales como refugios, suministros médicos, agua y combustible.*

*2. Israelgo agintariek berehala utzi behar diote Gazako palestinarren aurka Genozidioaren Konbentzioan debekatuta dauden ekintzak gauzatzeari; hau da, utzi behar diote, besteak beste, palestinarrak hiltzeari, haien integritate fisiko edo mentala larriki hondatzeari eta integritate fisikoaren suntsiketa dakarten baldintzak inposatzeari.*

*2. Que las autoridades israelíes dejen inmediatamente de cometer actos prohibidos en la Convención sobre el Genocidio contra la población palestina de Gaza, lo que incluye la matanza de sus miembros, lesión grave a su integridad física o mental y sometimiento intencional de ella a condiciones de existencia que habrían de acarrear su destrucción física.*

*3. Israelgo agintariek premiaz ahalbidetu behar dute Gazara laguntza humanitarioa sartzea; bertan behera utzi behar dute lurraldeari ezarritako blokeo gizagabe eta ilegala, eta Palestinako Lurralde Okupatuko okupazioa amaitu behar dute, praktikan jarrita Nazioarteko Justizia Gortearen 2024ko uztaileko iritzi aholku-emailea, zeinak ilegaltzat jo baitzuen Israelen okupazioa Gazan eta Zisjordanian, horren barruan sartuta Ekialdeko Jerusalem.*

*3. Que las autoridades israelíes faciliten con urgencia el acceso humanitario y la entrega de ayuda a Gaza, levanten el bloqueo inhumano e ilegal a este territorio y pongan fin a la ocupación del Territorio Palestino Ocupado,poniendo en practica la opinión consultiva de la Corte Internacional de Justicia de julio de 2024 que declaraba ilegal la ocupación por Israel de Gaza y de Cisjordania, incluida Jerusalén Oriental.*

*4. Hamasek eta Gazako gainerako talde armatuek berehala askatu behar dituzte bahituta dituzten zibil israeldarrak eta atzerritarrak, eta Israelek aske utzi behar ditu arbitrarioki atxilotutako palestinarrak. Su-etenaren hurrengo faseari buruzko negoziazio politikoen emaitzek ezin dituzte baldintzatu ekintza horiek.*

*4. Que Hamás y otros grupos armados en Gaza liberen inmediatamente a los civiles israelíes y extranjeros retenidos como rehenes, e Israel libere a las personas palestinas detenidas arbitrariamente. Ni lo uno ni lo otro puede estar supeditado al resultado de las negociaciones políticas sobre la siguiente fase de la tregua.*

*5. Europar Batasunak zuzen jokatu behar du: Gazako genozidio-ekintzen konplize izateko arriskua saihestu behar du, eta bere boterea eta influentzia erabili behar ditu giza eskubideak eta justizia babesteko eta kontuak emanarazteko. Zehazki, Genevako Hitzarmenekiko errespetua bermatu behar du; horien arabera, Estatu guztiek, gutxienez, benan behera utzi behar dituzte gatazkako alde guztientzako armatransferentziak, kooperatu egin behar dute nazioarteko zuzenbidearen urraketengatik kontuak ematen direla bermatzeko eta nazioarteko erakundeak eta mekanismoak babestu behar dituzte, horien barruan, Nazioarteko Zigor Gorteak eta NBEren Ikerketa Batzordeak Palestinako Lurralde Okupatuei buruz egindako ikerketak.*

*5. Que la Unión Europea haga lo correcto: evitar correr el riesgo de ser cómplice de actos de genocidio en Gaza y utilizar su poder, influencia y poder en favor de los derechos humanos, la justicia y la rendición de cuentas. En concreto que garantice el respeto a los Convenios de Ginebra que exige, como mínimo, que todos los Estados suspendan las transferencias de armas a las partes en el conflicto, cooperen para garantizar la rendición de cuentas por violaciones del derecho internacional y apoyen a las instituciones y mecanismos internacionales, incluidas las investigaciones de la Cone Penal Internacional y de la Comisión de Investigación de la ONU sobre el Territorio Palestino Ocupado.*

*6. Europar Batasunak irmoki kontra egin behar dio Gazan presentzia militar etengabea ezartzeko, bertako mugak aldatzeko edo Gaza eta Zisjordaniako*

*6. Que la Unión Europea se oponga frontalmente a cualquier intento de establecer una presencia militar permanente en Gaza, modificar sus fronteras o deportar*

*palestinarrak deportatzeko saio orori, eta onartu egin behar du bortxazko lekualdatzea Genevako Laugarren Hitzarmenaren urraketa larria eta gerra-krimena dela.*

*Donostian, 2025ko apirilaren 10ean*

*Jon Insausti Maisterrena*

*EAJ-PNV taldeko bozeramailea*

*Ane Oyarbide Ochoa*

*PSE-EE taldeko bozeramailea*

*Juan Karlos Izagirre Hortelano*

*EH Bildu taldeko bozeramailea*

*Victor Lasa Briz*

*Elkarrekin Donostia taldeko bozeramailea*

*Borja Corominas Fisas*

*PP taldeko bozeramailea".*

*a la población palestina de Gaza o Cisjordania, y reconozca que este traslado forzoso es una grave infracción del Cuarto Convenio de Ginebra y constituye un crimen de guerra.*

*Donostia, 10 de abril del 2025*

*Jon Insausti Maisterrena*

*Portavoz del grupo EAJ-PNV*

*Juan Karlos Izagirre Hortelano*

*Portavoz del grupo EH Bildu*

*Ane Oyarbide Ochoa*

*Portavoz del grupo PSE-EE*

*Victor Lasa Briz*

*Portavoz del grupo Elkarrekin Donostia*

*Borja Corominas Fisas*

*Portavoz del grupo PP".*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (09/05/2025 09:30 CEST), Eneko Goia Laso (09/05/2025 09:48 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : MR8L-L2OG-IZ38-DDI9